



Oroitzapenezko ekintzak eta
biktimen aitortza sustatzen
laguntzeko udalei eskaintzen
zaien agiri informatiboa

Euskal kasuan izandako
bizitzeko eskubidearen
aurkako urraketan
argazkiak, **herriz herri**

Eibar, 1960-2010

2015eko uztaila

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

Oroitzapenezko ekintzak eta
biktimen aitortza sustatzen
laguntzeko udalei eskaintzen
zaien agiri informatiboa

Euskal kasuan izandako
bizitzeko eskubidearen
aurkako urraketen argazkiak,
herriz herri

Eibar, 1960-2010

2015eko uztaila

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

Aurkibidea

Aurkezpena. 6

Bizitzeko eskubidearen aurkako **urraketak**.

1. ETAm, ETA pm eta ETAk bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak. 9
 2. BVE eta GAEk bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak. 23
 3. Segurtasun-indarrek bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak. 27
-

Erabilitako iturri eta zerrendak. 31

Aurkezpena

Euskal kasuarekin loturik 1960tik 2010era bitartean terrorismoaren eta beste edozein motatako indarkeria politikoaren ondorioz izandako bizitzeko eskubidearen urraketak bildu eta argitalpen bat prestatu du Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak. Argitalpenak berritasun nagusi bat du: datuak hiriburuz hiriburu ordenaturik ematea, helburua udalei datu-base bat ematea denez gero. Liburuxka hau Eibarri dagokiona da.

Lan hau egiteko, biktimei buruz argitaratu diren zerrenda guzti-guztiak berrikusi eta erkatu ditugu: Barne Ministerioarenak, biktimen elkarteek, hedabideek, egile partikularrenak, Nafarroako Gobernuarenak eta Eusko Jaurlaritzarenak, zehatz esatera. Datu horiek guztiak zehatz eta zorrotz laburtzea eta integratzea lan katramilatsu eta labaina da: kontsultatu ditugun datu-baseen artean alde nabarmenak daude, eta horregatik da katramilatsua; eta, bestalde, informazio honek sufrimendu latza eragin diezaieke hainbat pertsona eta familiari, eta horregatik da labaina. Esku artean daukagun hauek ez baitira, bistan denez, datu estatistiko hutsak.

Kasu gehien-gehieni dagokienez, nahikoa informazio eskuratu dugu, eta, gainera, informazio guztiak bat datoz. Zenbait gertakariri buruz (60ko, 70eko eta 80ko hamarkadetan gertatutako askori buruz, batik bat), ordea, ez dugu behar beste informazio biltzerik izan, edo eskura genituenak bertsio kontrajarri eta datu nahasgarriak baino ez ziren, eta, beraz, oraindik ez daukagu haiei buruz ondorio garbirik ateratzeko modurik. Alde horretatik, lan hau ez dago behin betiko dokumentutzat hartzerik, bertan agertzen diren kasu asko eta asko osatu eta hobetu egin behar baitira.

Nolanahi ere, datu guztiak oso sakon aztertu eta erkatu ditugu, eta, beraz, garbi esan dezakegu aztergai hartu ditugun gertakarien errealitate objektiboaren irudi zorrotz eta hurbila ematen dela bilduma honetan. Lehen aldiz, bizitzeko eskubidearen urraketa guztiak bildu eta biktimen izen-abizenak ematen dira argitalpen batean, hilketa eta biktima bakar bat ere kanpoan uzteke (nahi gabeko hutsegite edo omisio bat edo beste gorabehera).

Liburuxka hauetako bakoitzak hiriburu bat hartzen du ardatz, eta datu-base bana ematen. Hala, hiriburuz hiriburu egindako erretratu hauetan gaur egun arte eskura dugun informazioaren berri ematen da. Dena dela, dokumentu honetan ez da biktimen aitoren ofizialik egiten: bizitzeko eskubidearen urraketei buruzko

informazioa ematen da. Oraindik biktimen aitorten instituzionala amaitzeke dago. Eztabaida bete-betean gaude. Hala ere, berriazko helburua beste bat izan arren, lan honek ekarpen bat egin nahi dio, berdintasun-printzipioari estu-estu jarraituz, ezinbestez denon artean egin beharreko biktimen aitortzari.

Erretratu hauen helburu nagusia hau da: Euskadiko udalei beren herri-hiriei buruzko ahalik eta informazio gehiena ematea, horren bidez oroitzapenezko ekintzak eta biktimen aitortza sustatzen laguntzeko. Alde horretatik, lan-talde honek bat egiten du Euskadiko udalek horrenbestetan adierazitakoarekin, ondo ulertzen baitugu zer-nolako zailtasunak izan dituzten azken 50 urteotan indarkeriak eta terrorismoak beren herri-hirietan eragindako biktimei buruz behar beste informazio eskuratzeko (Memoriaren Mapa eta antzeko beste ekimen batzuk martxan jarri nahi izan direnean, esate baterako).

Hiriburu bakoitzari dagokion liburuxkan, hiriburu horretan bertan eraildako biktimak aipatzen dira, bai eta, beste lekuren batean hil arren, hiriburu horretan jaio edo bizitakoak ere. Edukia bi ataletan egituratu dugu: lehenbizikoan, bizitzeko eskubidearen urraketa nabarmentzat har daitezkeen kasuak zerrendatzen dira; bigarrenean, berriz, ikerketa-lan handiagoa eskatzen dutenak. Lehen blokearen barruan, hilketak egiletzaren arabera eta ordena kronologikoan aurkezten ditugu.

Giza eskubideen nazioarteko zuzenbideak bizitzeko eskubidearen urraketatzat jotzen ez dituen kasuak, jakina, ez ditugu erretratu hauetan aintzat hartu, nahiz eta kasu horiek ere lotuta dauden gertatu zireneko indarkeriazko testuinguruarekin. Mota horretako kasuak dira, adibidez, suizidioak, indarkeriazko ekintza batean jazotako heriotzak, polizien arteko ustekabeko tiroketak eta abar. Nolanahi ere, hildako horien senitartekoek ere merezi dute, jakina, gure enpatia eta sentiberatasuna, gizalegeak hala agintzen baitu.

Hitz batean, agiri honen xedea argi-argia da: gure udaletako arduradunei oroitzapenezko proiektuak egiteko baliabide egoki bat ematea. Iraganen gurean pairatu dugun indarkeriaren aurrean, erakundeok memoria kritiko bat sustatzeko eginbeharra daukagu. Biktimen oroitzapenari bizirik eutsi behar zaio, gaur egun eta etorkizunean giza eskubideekin konprometituri jarraituko badugu; bizitzeko eskubidearekin eta pertsona guztien duintasunarekin, batik bat.

Sekula gehiago egin behar ez denari eta sekula ahaztu behar ez dugunari buruzko erretratu bana ematen da liburuxka hauetan. Erretratu diogu, hemen aipatzen direnek aurpegi eta begiak baitaizkate. Erretratu batek pertsona konkretu bat adierazten du; izen-abizen, senitarteko, adiskide, historia, amets eta proiektu konkretuak dauzkan pertsona bat, alegia. Bidegabeki hildako biktima bakoitzaren sufrimenduaren giza erretratua da agiri hau.

Bizitzeko eskubidearen aurkako **urraketak**

1. **ETAm**, **ETApm** eta **ETAk** bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak

1

Juan Jose Tauste Sanchez

Data: 1979/08/04.

Adina: 26 urte.

Non jaioa: Villacarrillo (Jaen).

Bizilekua: Eibar (Gipuzkoa).

Destinoa: Eibarko Guardia Zibilaren kuartela.

Seme-alabak: Ezkonberria. Emazteak 18 urte zituen.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Guardia zibila.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Auto barruan, Eibarko Txonta kaleko bere etxearen ondoan, kuartelera zihoala.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua. Urdailean, toraxean eta buruan egin zioten tiro.

2

Mario Gonzalez Blasco

Data: 1980/08/02.

Adina: 51 urte.

Non jaioa: Zugaztieta (Trapaga, Bizkaia).

Seme-alabak: Bi seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Gallartako (Bizkaia) Agruminsa enpresako soldatzailea. CCOO sindikatuko kidea zen.

Egilea: ETApn.

Heriotza-lekua: Lanetik ateratzean, lankide batekin batera Land Rover batean etxera zihoala, bahitu egin zuten. Gorpua, zortzi bala-zaurirekin lurtean etzanda, ordu batzuk geroago aurkitu zuen Eibarko Aginaga auzoko bizilagun batek. Gorpuak urte hartako otsailaren 2an BVEk hildako Jesus Zubikarai "Jhisa" ageri zuten prentsa-zatiak zituen bularrean itsatsita.

Prozedura: Bahiketa eta galdeketa. Su-armaz hil zuten.

Datu gehigarriak: 2008ko abenduan, Eibarko Udalak Mario Gonzalezen eta herrian hildako beste biktima batzuen omenezko ekitaldi bat antolatu zuen.

3

Carlos García Fernandez

Data: 1980/10/07.

Adina: 55 urte.

Non jaioa: Astillero (Kantabria).

Bizilekua: Amaña, Eibar (Gipuzkoa), Arnedotik (Errioxa) aldatu berritan.

Seme-alabak: Bost seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Eibarko (Gipuzkoa) estanko baten jabea. Francoren Guardia-ko eta Mugimendu Nazionaleko kide ohia. Sindikatu-bitartekaria izan zen Eibarko Orbea enpre-san lanean aritu zen garaian.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Eibarko (Gipuzkoa) bere dendan.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

4

Jose Alberto Lisalde Ramos

Data: 1980/11/06.

Adina: 27 urte.

Non jaioa: Órgiva (Granada).

Destinoa: Eibarko Polizia Nazionalaren polizia-etxea.

Seme-alabak: Bi seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Polizia Nazionaleko kidea.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Eibarko (Gipuzkoa) Karmengo Ama kalean, bere adiskide ile-apaintzailearekin batera autoan sartzera zihoala.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Atentatu berean, Sotero Mazo Figuroa hil zen. 2006ko abenduaren 21ean, Eibarko Udalak oroitarri bat jarri zuen Udaletxe barruko patioan.

5

Sotero Mazo Figueroa

Data: 1980/11/06.

Adina: 35 urte.

Non jaioa: Garganta (Cáceres).

Bizilekua: Ermua (Bizkaia).

Seme-alabak: Bi seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Ile-apaintzailea. Gizonezkoentzako ile-apaindegi baten jabea zen Eibarren.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Eibarko (Gipuzkoa) Karmengo Ama kalean, bere adiskide polizia nazionalarekin batera autoan sartzera zihoala.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Atentatu berean, Jose Alberto Lisalde Ramos hil zen. 2006ko abenduaren 21ean, Eibarko Udalak oroitari bat jarri zuen Udaletxe barruko patioan.

6

Juan García León

Data: 1980/11/17.

Adina: 21 urte.

Non jaioa: Málaga.

Destinoa: Eibar (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Ezkongabea.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Guardia Zibila.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Guardia Zibilaren konboi baten parte zen Land Rover bat gidatzen zuen. Star arma-fabrikatik irtetean, Eibarko Amaña auzoko gasolindegian, metrailatu egin zituzten.

Prozedura: Su-armaz eta granadaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Beste bi agente zauritu ziren: Juan Baños Lopez eta Gregorio Gonzalez Rolandan. Eibarko Udalak, atentatua gaitzesteko, 24 orduko lanuztea egin zuen.

7

Jose Javier Moreno Castro

Data: 1980/12/11.

Adina: 27 urte.

Non jaioa: Puentes de García Rodríguez (Coruña).

Destinoa: Urte eta erdi zerman Eibarko (Gipuzkoa) Polizia Nazionalaren polizia-etxean.

Seme-alabak: Ezkongabea.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Brigada Politiko eta Sozialeko (BPS) inspektore-ordea.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Eibarko San Agustin kaleko polizia-etxetik gertu, Bidebarrieta kaleko Bikini tabernan eserita zegoela, buruan bi tiro egin zizkioten. Ondoan zuen andregai, baina onik atera zen.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

8

Antonio Huegun Agirre

Data: 1982/05/14.

Adina: 42 urte.

Non jaioa: Aia (Gipuzkoa).

Bizilekua: Lasarten, 18 urte zituenetik.

Seme-alabak: Alaba bat eta seme bat.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Taxilaria.

Egilea: ETAm

Heriotza-lekua: Sei tiro jota hilik agertu zen Bilbo-Behobia autopista ondoko bide batean, Eibarko Arratetik hurbil.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Talde bakar batek ere ez zuen atentatua bere gain hartu atentatua baina Barne Ministerioak ETaren biktima bezala aitortu du.. Gorpua 07:00ak aldera aurkitu zuten, "tamaina handiko paper batean bildurik" (*El País*).

9

Sebastian Aizpiri Leiaristi

Data: 1988/05/25.

Adina: 38 urte.

Non jaioa: Elgoibar (Gipuzkoa).

Bizilekua: Eibar (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Ezkongabea.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Eibarko Txaltxa jatetxearen eta Elgoibarko harategi baten jabea zen.

Egilea: ETA.

Heriotza-lekua: Labaderokuan, Eibarko Arrate hotelaren ondoan. Momentuan bertan hil zen.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Aizpiriren hilketak, Francisco Javier Zabaleta Aizpitarterenak bezala (1988/06/06) Elgoibarren, mobilizazio ugari eragin zituen Eibarren.

10

Jose Antonio Barrado Recio

Data: 1988/12/18.

Adina: 30 urte.

Non jaioa: Madroñera (Cáceres).

Destinoa: Eibarko (Gipuzkoa) kuartela.

Seme-alabak: Hiru seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Polizia Nazionalaren kaboa.

Egilea: ETA.

Heriotza-lekua: Ipurua futbol-zelaitik gertu, gaur egun Eroski den eta orduan Gisasola enpresa zenaren ondoan, Poliziaren konboi bat igarotzen ari zela, bonba-auto bat leherrarazi zuten.

Prozedura: Bonba-auto bat leherrarazita.

Datu gehigarriak: Beste lau zauritu izan ziren: Arrateko parrokiako sakristaua, Jose Aldaolea (bertsioak ez datoz bat: batzuen arabera, eztandaen ondorioz zauritu zen; beste batzuen arabera, ondoren izandako tiroketan), eta hiru polizia, Francisco de la Mata Garcia, Miguel Ruiz Ruiz eta Francisco Zaragoza Lluch. Larritasunik gabe zauritu ziren Maria de los Angeles Martinez Muñoz, Candido Mangas Martin eta Juan Carlos Gonzalez Muñoz, bai eta Angel Lozano de Priego polizia ere. Eztanda "itzela" izan zen, eta inguruko fabrika ugari kaltetu zituen; tartean, Sigma eta Gisasola enpresak (*El País*, 1988/12/19). Eguberri-egunean, gaitzespen-manifestazio bat antolatu zuen Eibarko Udalak.

11

Jose Aldaolea Abaitua

Atentatuaren data: 1988/12/18.

Adina: 77 urte (70 urte eta 73 urte ote zituen ere aipatzen dute beste iturri batzuek).

Bizilekua: Eibar (Gipuzkoa).

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Eibarko Arrate auzoko parrokiako sakristaua.

Egilea: ETA

Prozedura: Galdakaoko ospitalean ingresatu zuten zauri larriekin Guardia Zibilaren konboi baten aurka ETAk egindako atentatu baten ondorioz. Baina ez da argia zaurien zergatia: batzuentzat auto-bonbaren leherketak harrapatu zuen eta besteren batek dio "atentatuaren osteko polizien eta terroristen arteko tiroketaren biktima izan zela" (*Libertad Digital*).

Datu gehigarriak: *La derrota de ETA* liburuak atentatuan zauritutako pertsona gisa aurkezten du. AVT eta Covitek ere ez dute hildakoen zerrendan sartzen. Bat egiten du Fundación de Víctimas del Terrorismo-k eta Arartekoaren 2009ko txostenak, nahiz eta data gaizki jaso zuten. Hala ere, bere heriotza data 1990an atentatu egileen aurka egindako epaiketaren ondorengo da. Datu hori berresten da *Mapa del Olvido: El mapa de los Asesinatos de ETA* liburuan ere. Hartan esaten denez, "ez dakigu noiz hil zen ez eta bere heriotza atentatuak utzitako ondorioek eragina izan zen ere". Eibarren 2008ko abenduaren 21ean egin zen omenaldian "indarkeria terroristak kaltetutakoen" artean sartu zuten eta Barne Ministerioak biktima gisa onartua du bere zerrendan.

12

Miguel Angel Blanco Garrido

Bahiketaren data: 1997/07/10.

Gorpu agertu zen data: 1997/07/12.

Heriotza-data: 1997/07/13.

Adina: 29 urte.

Non jaioa: Ermua (Bizkaia).

Seme-alabak: Ezkongabea.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: PPko zinegotzia Ermuko Udalean. Enpresa Zientzian lizentziatua. Eibarko Eman Consulting enpresako langilea zen. 1995ean, PPko Nuevas Generacionesen afiliatu zen.

Egilea: ETA.

Heriotza-lekua: Eibarren bahitu eta bi egunera, ehiztari batzuek aurkitu zuten Lasarte-Oriako eremu batean, Txartel hotelaren eta Kotxeras auzoaren artean, buruan bi tiro eta eskuak bizkarrean loturik zituela. Egoera kritikoan eraman zuten Donostia Ospitalera, eta hantxe hil zen, uztaillaren 13an, goizaldeko 04:30ean.

Prozedura: Bahiketa eta su-armen bidezko hilketa.

Datu gehigarriak: ETAk ultimatum bat eman zion Espainiako Gobernuari: uztaillaren 12a baino lehen euskal presoak Euskal Herriko espetxeetara ekartzeko, bestela zinegotzi gaztea hilko zuela eta. ETAk ezarritako epemuga igaro eta berrogeita hamar minutura, Miguel Ángel Blanco oso larri zaurituta agertu zen Lasarte-Orian. Blancoaren bahiketak eta heriotzak gaitzespen-mugimendu itzela eragin zuten: lehenbizi, zinegotziaren askatasuna eskatzeko; gero, hilketa gaitzesteko eta etxekoei elkartasuna adierazteko. Manifestazio asko egin ziren. Kontzentrazioak egin ziren HBren egoitzen aurrean. Gertaera hauen ondorioz sortu ziren Manos Blancas eta Ermuko Foroa.

Bizitzeko eskubidearen aurkako **urraketak**

2. **BVE** eta **GAE**k bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak

1

Jesus Mari Zubikarai Badiola

Data: 1980/02/02.

Adina: 22 urte.

Non jaioa: Ondarroa (Bizkaia).

Seme-alabak: Ez zuen seme-alabarik.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: EIAko kidea eta EEko jarraitzailea. Basauriko espetxean preso eduki zuten, ETApn-ko kide izatea egotzita.

Egilea: Gertakaria beren gain hartu zuten Batallón Vasco Españoleko (BVE) Jose Maria Arrizabalaga komandoak eta Grupo Antiterrorista ETA (GAE) taldeak.

Heriotza-lekua: Ondarroan bahitu zuten, eta gorpua bederatzi tiro zituela agertu zen Eibarko Aginaga auzoan, Ixuako portura daraman bide batean.

Prozedura: Bahiketa. Su-armaz hil zuten.

2

Esperanza Arana Lopez

Data: 1980/11/14.

Adina: 32 urte.

Non jaioa: Eibar (Gipuzkoa).

Bizilekua: Caracas (Venezuela). Aurretik, senar-emazteak Oñatin bizi izan ziren.

Seme-alabak: Ez zuen seme-alabarik.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Venezuelako Euskal Preso eta Iheslariei Laguntzeko Batzordearen sortzaileetako bat. Abertzalea izan arren, ez zuen afiliazio politikorik.

Egilea: Batallón Vasco Español (BVE).

Heriotza-lekua: Caracasko (Venezuela) Kale Nagusian, Niagara etxeko seigarren solairuko bere apartamentuan.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Jokin Alonso Etxeberria senarra ere atentatu berean hil zen. Martxoan, "inkontrolatu" batzuek haien kide baten etxearen aurka tiro egin zuten. Erasoak kalte materialak baizik ez zituen eragin.

3

Jokin Alonso Etxeberria

Data: 1980/11/14.

Adina: 31 urte.

Non jaioa: Eibar (Gipuzkoa).

Bizilekua: Lan-kontuengatik Caracasen (Venezuela) bizi zen. Aurretik, senar-emazteak Oñatin bizi izan ziren.

Seme-alabak: Ez zuen seme-alabarik.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Industria-ingeniaria. UNEDen Filosofia ikasia. Oñatiko koope-
ratiba batean egin zuen lan. Venezuelako Euskal Preso eta Iheslariei Laguntzeko Batzordearen
sortzaileetako bat. *Iritzi* aldizkariko erredaktorea. Ez zuen afiliazio politikorik.

Egilea: Batallón Vasco Español (BVE).

Heriotza-lekua: Caracasko (Venezuela) Kale Nagusian, Niagara etxeko seigarren solairuko
bere apartamentuan.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Esperanza Arana López emaztea ere atentatu berean hil zen. Martxoan, "in-
kontrolatu" batzuek haien kide baten etxearen aurka tiro egin zuten. Erasoak kalte materialak
baizik ez zituen eragin.

Bizitzeko eskubidearen
aurkako **urraketak**

3. **Segurtasun-indarrek**
bizitzeko eskubidearen aurka
egindako urraketak

1

Roberto Perez Jauregi

Atentatuaren data: 1970/12/04.

Heriotza-data: 1970/12/08.

Adina: 21 urte.

Non jaioa: Eibar (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Ez zuen seme-alabarik.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: PCE(i)ko (Espainiako Nazioarteko Alderdi Komunista) kidea.

Egilea: Polizia Nazionala.

Heriotza-lekua: Donostiako ospitalean hil zen, lau egun lehenago, Burgosko gerra-kontseilua-
ren aurka protestatzeko Eibarren egin zen manifestazio batean, polizia batek tiroz oso larri zau-
ritu ondoren.

Prozedura: Su-armaz tiro egin zioten. Ziur asko, dum-dum balak erabili zituzten, eta oso gertutik
egin zioten tiro, gibela txiki-txiki egina baitzuen.

Datu gehigarriak: Tiroen egilea kale-jantzian zihoan, eta gero, graduazioro igotzeko eta Valladolidera
bidali zuten (*Deia*, 2009/12/06). Greba orokorraren bigarren eguna zen. Dilijentziak irekiak dau-
de 13/71 sumarioan (Coruñaako artxiboa).

2

Alberto Soliño Mazachs

Data: 1976/06/12.

Adina: 32 urte.

Non jaioa: Bouzas (Vigo, Pontevedra).

Bizilekua: Errenteria (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Hiru seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Musikaria, bateria jotzen zuen. Elektrotresna-denda baten jakide.

Egilea: Kale-jantzian zihoan guardia zibil bat.

Heriotza-lekua: Eibarko (Gipuzkoa) aparkaleku batean, Jai Alai diskotekan egin zen musika-jaialdi batean parte hartu ondoren.

Prozedura: Armaren ipurdiarekin jo zuten, eta gero, tiro egin zioten urdailean.

Datu gehigarriak: Familiari ez zioten eskela jartzen utzi. 2012an, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuarekin bat etorritik, Eusko Jaurlaritzaren Balorazio Batzordeak aintzat hartu zuen kasu hau.

Erabilitako iturri eta zerrendak

- ABC: *ABC Especiales, Todas las víctimas del terror*, www.abc.es/especiales/eta/victimas
- Alonso, Rogelio, Florencio Domínguez y Marcos García Rey, *Vidas rotas. Historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA*, Espasa, Madril, 2010.
- Arartekoa: *Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arreta*, Eusko Legebiltzarrari egindako txosten berezia, 2009ko ekaina.
- Argituz (Giza Eskubideen Aldeko Elkarte), www.argituz.org
- Arovite, Valentin de Foronda Gizarte Historiarako Institutua (UPV-EHU). www.arovite.com/bases-de-datos/
- AVT (Terrorismoaren Biktimen Elkarte). www.avt.org
- Barne Ministerioa. www.interior.gob.es/
- Calleja, Jose Maria; Sanchez-Cuenca, Ignacio: *La derrota de ETA. De la primera a la última víctima*, Adhara, Madril, 2006.
- Covite (Euskal Herriko Terrorismoaren Biktimen Elkarte). www.covite.org
- Egin: *Anuarios 1977-1982 eta Anuarios 1982-1997*.
- El Correo. <http://especiales.elcorreo.com/2006/eta/index.html>
- El País: *Las Víctimas*. www.elpais.com/especial/eta/victimas.html
- Euskal Memoria Fundazioa: *Datu-basea*. www.euskalmemoria.com
- Eusko Jaurlaritz. www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-subpaz/es/
- Fernando Buesa Blanco Fundazioa (dokumenta- zio- eta ikerketa-zentroa). www.fundacionfernandobuesa.com
- Fonseca, Carlos (koord.). 1960. eta 2014. *urteen artean hildakoak eragindako erakunde terroristen atentatuen auzibideari buruzko txostena. Euskal kasua*. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren enkarguz egina. Eusko Jaurlaritz. 2014ko abendua.
- Giza Eskubideen Zuzendaritza: *Motibazio politikoko indarkeria-egoeran gertatutako giza eskubideen urraketen eta sufrimendu bidegabeen biktimei buruzko txostena*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritz, 2008. www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-subpaz/es
- Juan March Fundazioa. Espainiako trantsizioari buruzko Linz artxiboa. CEACS. www.march.es/ceacs/biblioteca/proyectos/Linz/

- Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren Dokumentaziounea. www.lbfundazioa.org
- Libertad Digital: *In Memoriam: No olvidar lo inolvidable*. www.blogs.libertaddigital.com/in-memoriam/
- Marrodan, Javier; Araluce, Gonzalo; Garcia de Leaniz, Rocio; Jimenez, Maria: *Relatos de plomo. Historia del terrorismo en Navarra 1960-86*, Iruñea, Nafarroako Gobernua, 2013.
- Nuñez, Luis (koord.): *Euskal Herria y la Libertad* (8 lib.), Tafalla, Txalaparta, 1993.
- Pulgar Gutierrez, Belen: *Víctimas del Terrorismo: 1968-2004*, Madril, Dykinson, 2004.
- Terrorismoaren Biktimen Fundazioa. www.fundacionvt.org
- Terrorismoaren Biktimen Fundazioa: *Asesinatos de ETA en Álava*. www.alava.net
- Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza: *Kontrolatu gabeko taldeen, eskuin muturreko taldeen eta GALen terrorismoak eragindako biktimei buruzko txostena*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2008. www.interior.ejgv.euskadi.net/r42440/es/contenidos/informacion/informacion_documentos_interes/es_document/adjuntos/informe%20final.pdf
- Vasco Press Agentzia: "Crónica de documentación y actualidad", 1.176. alea, 2004ko abuztua.
- Zenbait egunkari: *ABC, Berria, Deia, Diario de Noticias, Egin, El Correo, El Diario Vasco, El Mundo, El País, Euskaldunon Egunkaria, Gara, Hitz, La Razón, La Vanguardia, Noticias de Álava, Noticias de Gipuzkoa*.